

2025an ere, azken bi urteetan bezala, akordioaren bideari eutsi zaio, langileen %54,3k indarrean baititu hitzarmenak

- 2024ak mugarri bat ezarri zuen Euskadiko negoziazio kolektiboan, urtearen amaieran langileen %67,7k baitzituen hitzarmenak eguneratuta.

Bilbon, 2025eko uztailaren 10ean. 2024. urtea mugarria izan zen Euskadiko negoziazio kolektiboan, langileen %67,7k hitzarmena eguneratuta zituela itxi baitzen urtea, 2012ko lan-erreforma indarrean sartu zenetik izandako ehunekorik handiena. **2025an ere, aurreko bi ekitaldietan bezala, akordioaren bideari eutsi zaio**, eta maiatzaren 31n, soldatapekoen %54,3k beren hitzarmena eguneratuta zeukaten, eta enplegu-bolumen handiko hitzarmenak ari ziren negoziatzen.

Datu horiek **Emilia Málaga Pérezek**, Lan Harremanen Kontseiluko (LHK) presidentek, eman ditu jakitera gaur goizean Bilbon, hain zuzen ere "Egoera Ekonomikoa eta Lan Harremanak EAEn 2024an" txostenaren aurkezpenean –Kontseiluaren webgunean (www.crl-lhk.eus) kontsulta daiteke–, eta 2025eko lehen bost hilabeteetako datuen aurrerapenean.

Izan ere, gizarte-eragileek 2024an eta 2025eko lehen hilabete hauetan lortutako akordioei esker, iraungita zeuden hitzarmen batzuk berreskuratu dira, eta gure negoziazio-eremuak handitu dira. 2025eko urtarrilaren 1etik maiatzaren 31ra bitartean, 67.070 langileri estaldura ematen dieten hitzarmenak sinatu dira; horien artean, nabarmentzekoak dira Bizkaiko Ostalaritzako Hitzarmena, 23.000 langile baino gehiagori eragiten diena, eta Arabako Eraikuntza eta Herri Lanetako Hitzarmena, 3.000 langile baino gehiagori eragiten diena.

Indarrean dauden hitzarmenetan jasotako **batez besteko soldata-igoerari dagokionez**, 2025eko maiatza amaitzean %3,13koa izan zen, honako banaketa honekin: %3,14koa Euskal Autonomia Erkidegoan negoziatutakoetan, eta %3,10koa Euskal Autonomia Erkidegoan eragina duten estatu-mailakoetan. Eta aurtengo ekitaldian zehar erregistratutako hitzarmenei dagokionez, batez besteko soldata-igoera %3,22koa izan zen, honela banatuta: %2,90eko igoera EAEn negoziatutakoetan, eta %3,59koa EAEn eragina duten estatu-mailakoetan.

Lanaldia

2025eko maiatzaren 31n, aplikatu beharreko batez besteko lanaldia, indarrean dauden hitzarmenak eta luzapen-egoeran daudenak kontuan hartuta, ia **1.685 ordukoa** izango litzateke, hau da, **astean 37 ordu** inguru, eta alde txikiak egongo lirateke lurraldearen eta sektorearen arabera. EAEn negoziatutako hitzarmenetan, batez besteko lanaldia 1.667 ordukoa da (36 ordu eta 30 minutu inguru), eta EAEn eragina duten estatu-mailakoetan, asteko lanaldia ordubete eta 20 minutu handiagoa izango litzateke gutxi gorabehera (guztira, 37 ordu eta 50 minutu inguru). Asteko 40 orduko lanaldia 1.826 ordukoa izango litzateke urteko zenbaketan (zehazki, 1.826 ordu eta 27 minutu).

Balizko arau-aldaketa baten testuinguruan, non urteko gehieneko lanaldia asteko 40 orduetatik 37,5 orduetara igaroko litzatekeen (1.712 ordu urtean), LHKn jasotako datuek adierazten dute EAEn sektoreko 133 hitzarmenetan izango lukeela eragina (EAEn negoziatutako 33 hitzarmenetan eta EAEn eragina duten estatu-mailako 100 hitzarmenetan), eta enpresako 351 hitzarmenetan. Ildo horretatik, uste da hitzarmena indarrean edo luzatuta duten **langileak 281.828 izango liratekeela, eta horien lanaldia**, egun 1.754 ordukoa dena batez beste, **%2,4 murriztuko litzatekeela**.

Lan-gatazkei dagokienez, greba-kopuruak ez zuen gora egin 2025eko lehen hiruhilekoan, baina bai egin zuen gora, bai parte-hartzaileen kopuruak, bai lan egin gabeko lanaldien kopuruak. Lan egin gabeko lanaldien %95,2 EAEko sektore publikoan deitutako greben ondorio izan ziren; zehazki, unibertsitatez kanpoko irakaskuntza publikoko grebak greben ondorioz lan egin gabeko lanaldi guztien %94,3 hartu zuen. Enplegu-erregulazioko espedienteek eragindako pertsonen kopuruari dagokionez, maiatzera arte 3.322 izan ziren, hau da, aurreko urteko aldi berean baino %31,1 gutxiago.

Gizarte Segurantzaren afiliatutako pertsonen kopurua maximo historikoetan mantentzen da gure Erkidegoan: 1.029.145 pertsona ekainean, hau da, %0,9ko igoera 2024ko ekainarekin alderatuta. Langabezia-tasa %7an kokatu zen aurtengo lehen hiruhilekoan, 2009ko lehen hiruhilekoaren (%7,7) azpitik.

2024ko itxiera

Gaur aurkeztutako LHKren txostenak EAEko egoera soziolaboralak 2024. urtean izan duen bilakaeraren azterketa zehatza jasotzen du.

EAEko negoziazio kolektiboak lan-kontratua duten soldatapekoen %93ri eragiten die. Gutxi gorabehera %7k –48.000 pertsona inguruk– hitzarmen batek inoiz arautu ez dituen jardueretan lan egiten du; gehienak etxeko langileak dira, 28.000 inguru EAEn.

Bada ezaugarri bereizgarri bat: **garatzen den negoziazio kolektibo gehiena EAEn egiten da, eta sektoreko hitzarmenek garrantzi handia dute**. Zifra zehatzetara jota, EAEko langileen %75,2k sektoreko negoziazio kolektiboaren babesa du, eta gainerako %24,8a enpresa-hitzarmenen eraginpean dago. Era berean, akordio gehienak EAEn barruan negoziatzen dira, eta soldatapekoen %70,9ri eragiten diete; aldiz, langileen %29,1 EAEn eragina duten baina estatu-mailan negoziatu diren akordioen eraginpean daude.

2024. urtearen amaieran, EAEko soldatapekoen %67,7k (+%3,9) eguneratuta zituzten hitzarmenak, %27,7k akordioak luzapen-egoeran zituzten, eta %4,6k baino ez zeuden hitzarmenak iraungita eta estaldurarik gabe. Gizarte-eragileek 2023an eta 2024an egindako jarduera handiari esker, batez ere sektore-eremuan, ekitaldia ixtean 2012ko

lan-erreforma indarrean sartu zenetik langileen ehuneko handiena dago hitzarmenak indarrean dituela, eta langile-kopuru txikiena hitzarmenak iraungita dituela.

"Egiaztatu dugu negoziazio-jarduerari eutsi egin zaiola urteko lehen hilabete hauetan. Nazioarteko panorama ziurgabetasunez beteta dago, eta ez dakigu ziurgabetasunok zer-nolako eragina izango duten gure ekonomian eta lan-harremanetan, baina badakigu elkarrizketaren, elkar ulertzearen eta akordioaren kultura batzuek pentsa lezaketena baino askoz ere indartsuagoa dela, eta garai zailei aurre egiten jakin du. Kultura sendoa eta beharrezkoa da, eta horren alde egiten jarraituko dugu", adierazi du LHKko presidenteak, Emilia Málaga Pérezek.

2024 urtearen hasieran soldatapekoen %52,3k (+%25,3) zeuzkan hitzarmenak berrituta, aurreko ekitaldian lortutako akordioen ondorioz.

EAEn indarrean dauden hitzarmenetan itundutako batez besteko soldata-igoera %3,35ekoa izan zen, honela banakatuta: %3,51ko batez besteko igoera EAEn negoziatutako hitzarmenetan, eta %2,98ko igoera EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenetan.

Bestalde, lan-gatazkek behera egin zuten 2024an. Gatazkaren arrazoi nagusia negoziazio kolektiboa da, eta horren baitan eragin handia dute greben ondorioz lan egin gabeko orduetako gatazka sektorialek. Hori dela eta, azken urteetan lortutako akordioek greba-kopurua nabarmen murriztea ahalbidetu dute, guztira 260 greba egin baitira, eta 2023an 325 izan ziren.

Bada, enplegu-erregulazioko espedienteek (EEE) 9.508 pertsonari eragin zieten. Horietatik %90,3 aldi baterako lan-erregulazioengatik izan ziren, eta %9,7 lan-harremana amaitzeko espedienteak izan ziren. Eraginpeko pertsonen %83,7k industrian egiten zuen lan. 2024an gorakada hori izan zen arren, 2025eko datuek erakusten dute **joera nolabait eten egin dela**, eraginpeko pertsonen kopuruak behera egin baitu.

Lan Harremanen Kontseiluari buruz

Lan Harremanen Kontseilua EAEko erakunde publiko bat da, sindikatu- eta enpresa-konfederazioen arteko elkarrizketarako eta etengabeko topaketarako organo gisa eta Eusko Jaurlaritzaren eta Legebiltzarraren arlo sozioraboreko kontsulta-organoa gisa eratua. Nortasun juridiko propioa du, eta independentzia osoz jarduten du bere eginkizunen garapenean. 14 kidek osatzen dute, 7 sindikatuak izendatuak eta 7 EAEko enpresa-konfederazio adierazgarrienek izendatuak. Gainera, LHKko kide dira presidenteak eta idazkari nagusia.

"Egoera Ekonomikoa eta Lan Harremanak EAEn 2024an" txosten osoa eskuragarri dago LHKren webgunean: www.crl-lhk.eus/eu/

PRENTSA KABINETEA:

Irma Cerro Serna (MBN Comunicación)

Tel.: 94 435 63 30 / 628 538 215 irmacerro@grupombn.com